

**EKIOLA MENDIALDEKO OBRAK BISITA**
VISITA A LAS OBRAS DE EKIOLA MENDIALDEA

2023-03-06 Maeztu 06-03-2023

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Arabako Ahdun Nagusi jauna, Arabako Mendialdeko Koadrillako buru eta baita Udalerrietako alkate, alkatesa, Sailburua, Foru Diputatua, Mondragon Taldearen buru zaren Iñigo, herri agintari eta herri ordezkariok, bai Euskal Energiaren Erakundearen eta baita KREAN-en arduradun eta kideok, jaun andreok, egun on! Eskerrik asko zuen gonbidapenagatik eta proiektu hau lehen eskutik ezagutzeko aukera emateagatik.

Efizientzia energetikoaren erronka aurrean dugun garrantzitsuenetako bat da. Gure planetako baliabideak mugatuak dira eta tentu handiz zaindu behar ditugu. Inflexio puntua aspaldi gainditu genuen eta gure betebeharra da efizientziaren aldeko apustu garbia egin eta horren aldeko pausu sendoak ematen jarraitzea. Ez dugu beste aukerarik. Ez dugu beste planetarik. Ez dugu 'B' aukerarik.

Herri batek aurrera egiteko badu energiaren kontsumoaren beharra. Kontrakoa esatea gure buruarekin zintzoak ez izatea izango litzateke. Zer esanik ez herriaren garapena industrian oinarritzen badugu. Hori da Euskadiren kasua.

Kontsumo hori energia berriztagarrien eskutik etortzea ezinbestekoa da. Energia garbiak sortu behar ditugu, gure kanpoko menpekotasuna gutxitzeko. Pandemia eta Ukrainako inbasioa lezio aurreratuak izan dira guretzat zentzu horretan.

Efizientzia energetikoan aurrerapausoak eman eta energia bera sortzeko gaitasuna izan behar dugu. Hau da, gure burua energiaren sorkuntzan eta kontsumo jasangarrian inplikatu behar dugu, batez ere gure etxeetan. Hori da EKIOLA-ren xedea hain zuzen ere. Gure bizitzeko eran zuzeneko eragina izatea.

Es imprescindible cambiar nuestros hábitos de consumo energético. Hacer una apuesta inequívoca por la eficiencia energética, y por la generación propia de energía limpia y renovable. Este es el objetivo de EKIOLA.

En todo caso, es prácticamente imposible generar toda la energía que necesitamos a través de este tipo de instalaciones. Pero tenemos claro que marcan un camino a seguir. El camino de la conciencia y de la autosuficiencia.

Es necesario que nos involucremos con nuestra manera de consumir recursos. Saber cuántos empleamos en nuestro día a día. En definitiva, educarnos en el uso y consumo de energía. Porque no tenemos plan 'B'. No hay alternativa a la eficiencia ni a la generación propia de energía.

Hoy tenemos la suerte de conocer 'in situ' la instalación que se está materializando aquí en Arraia-Maeztu. La primera en comenzar a construirse en Euskadi. Se está empleando, además, una vía que conocemos bien: la fórmula de la cooperativa.

Este es un reto que nos interpela a todas y a todos. Nuestra respuesta demanda cooperación y unión de fuerzas. En definitiva, hablamos de implicación y de asumir responsabilidades.

La "Estrategia Energética Euskadi 2030" se traduce en estos proyectos concretos. Proyectos de nueva gobernanza energética alineados con las políticas energéticas europeas.

El objetivo es generar la máxima energía para que comunidades, empresas y cada persona seamos lo más autosuficiente posible. O, al menos, podamos reducir parte de nuestra elevada dependencia. Hacerlo, por supuesto, a través de una energía verde. Es fundamental que cada persona se sienta protagonista de la manera en que satisface sus necesidades, tanto domésticas como de empresa.

Auzolanean oinarritzen dugu EKIOLA ekimena. Auzolanean oinarritzen dugun bezala gure etorkizuna. Europako Green Deal-Itun Berdea abiapuntu hartuta eta garapen jasangarriarekin lerrokatuta, lankidetzaz uztartzen dugu. Beraz, gaurko honetan zorionak eta eskerrik asko erakutsitako konpromisoagatik. Ondo izan.